

## KULTURA KLASIKOA

Kultura Klasikoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailako aukerako jakintzagaia da, eta ikasleei greziar eta latindar zibilizazioen azterketarako lehen hurbilketa orokorra eskaintzea du helburu, haiek ezagutzearen bidez mundu klasikoaren ondareak mendebaldeko kulturaren duen iraupenaz, eraginaz eta presentziaz jabetu daitezten eta beren kultura-identitatea eta europar kontzientzia hobeto uler dezaten. Jakintzagai honen planteamendua zibilizazio klasikoa haren ondare material eta immaterialaren bitartez ezagutzera eta haren ezagutza eta balorazio kritikora bideratuta dago, kultura greko-latindarreko elementu historiko, sozial, politiko, kultural, linguistiko eta artistikoen eta sinesmen eta ohiturek tokiko, erkidegoko, lurraldeko, Estatuko eta Europako egungo gizartean eta kulturaren duten iraupenaren identifikazio eta azterketaren bidez ikasleek beren burua hobeto ezagutu eta ulertu ahal izan dezaten, gizarte plural baten parte eta Europako herritar diren heinean.

Kultura Klasikoa jakintzagaiak ikasleen gaitasunak eta funtsezko konpetentziakindartzen laguntzen du, EAEko irakaskuntza-hizkuntzetan eta ikasleen hizkuntza-errepertorioan jatorri greko-latindarreko terminoak oinarri hartuta esanahiak identifikatu, ezagutu eta ondorioztatzeko trebetasunak eskuratzearen bidez, hizkuntzen arteko loturari buruzko gogoeta egiteko eta zibilizazio klasikoak euskal kulturaren, Estatuak eta Europakoan utzitako ondare materiala eta immateriala modu kritikoan baloratzeko.

Egungo mundu globalean, jakintza-arlo desberdinen, garai desberdinen eta kultura-tradizio desberdinen arteko lotura bultzatuko duen prestakuntza humanistikoa inoiz baino beharrezkoagoa da. Ildo horretan, Kultura Klasikoa jakintzagaiak diziplina anitzeko ikuspegi bat erabiltzeko aukera ematen du, ikasleak ikas-egoeren bidez eta prestakuntza-ikuspegi integral batetik abiatuta ikasturte bereko, aurreko ikasturteetako eta, bereziki, ondorengo ikasturteetako beste jakintzagai batzuekin lotu beharreko jakintza sorta handi batera hurbiltzeko aukera bultzatzen baitu. Osagarritasun horren esperientzian bihurtzen da ikaskuntza ikasleentzat esanguratsu eta garrantzitsu. Gainera, kultura greko-latindarra sakonean aztertzeko gizonen zein emakumeen historian eta gizartean bete duten zereginari buruzko gogoeta indibiduala eta kolektiboa —ikasgelan— egitera bultzatu behar du, bizitza osoan ikaskuntzarako oinarriak finkatzeko. Ikasleak gure gizartearen —gure gizarte-konbentzioen, gure erakundeen, gure ekoizpen kultural, artistiko, zientifiko eta teknologikoen, gure hizkuntzen...— jatorri klasikoaz jabetzea lortu nahi da, eta, gogoeta horretarako, tresna analogikoak eta digitalak erabiliko dira.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Kultura Klasikoaren inguruko konpetentzia espezifikoek iraganarekiko elkarrizketa dute oinarri, hiru ikuspegi osagarritik abiatuta: Europako kulturaren sustrai klasikoak ezagutzea, ikasleen kultura-identitatearen ezagutza sustatuz; konpetentzia eleaniztuna hobetzen laguntzea, etimo greko-latindarretan oinarrituta lexikoa aberastuz, euskaraz, gaztelaniaz eta ikasleen hizkuntza-errepertorioan hizkuntzetan ahozko eta idatzizko ulermena eta adierazpena hobetzeko; eta zibilizazio greko-erromatarren ondare materiala eta immateriala ezagutzea, egungo mundua gogoeta kritiko batean oinarrituta interpretatzeko aukera bultzatuz eta herentzia klasikoaz gozatzearen eta hura zainitzearen bidez garapen indibiduala eta kolektiboa suspertuz.

Kultura Klasikoa jakintzagaiaren konpetentzia espezifikoetara eramaten duten oinarritzko jakintzak hiru multzotan antolatuta daude.

- *Mundu klasikoa: Grezia eta Erroma* multzoak antzinako mundurako hurbilketa historiko, geografiko, sozial, politiko eta kultural bat eskaintzen du. Garai haietako alderdi horien guztien analisi kritikoa genero-ikuspegiarekin egiteak eta gure mendebaldeko gizarteekin konparatzeak egungo gertakariak eta fenomenoak hobeto ezagutu eta ulertzea ahalbidetzen du eta Europako kultura-identitatea sendotzen du.
- *Hizkuntza klasikoak, Europako ondare komuna* multzoak latinak eta antzinako grekoak EAEko eta Europako egungo hizkuntzen konfigurazioari egindako ekarpen handia azpimarratzen du, eta latinarako eta grekorako (eta, bereziki, hizkuntza horien sistema lexikorako) lehen hurbilketa bat dakar. Hori, nolahi ere, lagungarria da ikasleen ahozko eta idatzizko ulermena eta adierazpena hobetzeko. Ikuspegi eleaniztunak hizkuntza- eta gizarte-aniztasuna ezagutzen laguntzen du, eta, aldi berean, kulturarteko konpetentziaren garapena sustatzen du.

– *Zibilizazio greko-latindarraren iraupena egungo munduan* multzoak zibilizazio klasikotik jasotako ondare kultural, zientifiko-tekniko, matematiko, literatura-arloko, artistiko eta arkeologikoaren aurkikuntzan, balorazioan eta errespetuan inplikaturako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak biltzen ditu, ondare horrenganako estimua sustatzen du gozamen-iturri den heinean, eta garapen individual eta kolektiborako baliabide gisa erabiltzen du. Horren bidez, ondare horren kontserbazioak eta hobekuntzak dakartzan erantzukizunak bere gain hartu ahal izango dira.

Kultura Klasikoa jakintzagaiko konpetentzia espezifikoak eskuratzeko plangintza egitean beste jakintzagai batzuekiko kooperazio-lanaren aukerak kontuan hartzea gomendatzen da: giza gorputzari eta gaitasunei lotutako terminologia eta eguzki-sistemako elementuen izenen jatorriari buruzko ikerketa kolaborazio-lan horien adibideak dira.

Azkenik, Europako herritartasun demokratiko eta aurreiritzirik gabeko baten eraikuntza bultzatzeko, jakintzagai honen barruan nazioz gaindiko kolaborazio-lana egin daiteke Europako programen esparruan, kultura greko-latindarra Europako egungo identitatea osatzen duten errealitate guztien topagune gisa landuz. Ildo horretan, tresna digitalen ahalmena bete-betean balia liteke jakintzagai hau ikasi, irakatsi eta ebaluatzeko, baita alfabetatze mediatikoa eta teknologiaren erabilera egokia, segurua, etikoa eta arduratsua sustatzeko ere.

## KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Zibilizazio greko-latindarrak Europako identitatearen jatorrian bete duen zeregina baloratzea, bizi-moduei eta pentsamenduari zein antolamendu administratibo, politiko eta sozialari lotutako antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzuz eta aztertuz, oraina kritikoki eta genero-analisan oinarrituta aztertzeko eta Europako herritartasunaren kontzientzia sendotzeko.

Zibilizazio greko-latindarrak Europako identitatearen hasiera gisa bete duen zeregina baloratzeko, mundu klasikoaren errealitate historiko, geografiko, sozial, politiko eta kulturalari buruzko informazioa bilatu, lortu, prozesatu, sortu eta komunikatu behar da, euskarri analogikoan eta digitalean, eta antzinako bizimoduaren eta pentsamenduaren funtsezko alderdiei buruzko informazioa lortzeko ezagutza bihurtu behar da informazio hori, gure mendebaldeko gizartekoekiko desberdintasunak eta antzekotasunak konparatzeko, Europaren sorreran, garapenean eta osaera historikoan sakontzeko eta Europako identitatea sendotzeko.

Orainaren analisi kritikoa egiteko, informazio kotestuala eta testuingurukoa behar da. Informazio horrek balorazio-hipotesiei elementuak eta argudioak gaineratzea ahalbidetu behar du, kultura-konstanteetara zein kultura-aldagaietara irekita egongo den kontzientzia humanista eta berdintasunezko bat garatzeko. Analisi horri ikuspuntu kritiko batekin ekiteko, ondare greko-latindarrean gizarte gisa hazten laguntzen digun zatia eta dagoeneko mundu modernoan lekurik ez duen eta Europako herritartasunarekin batearazina den zatia bereizteko gai izan beharra dago, eta gaitzespen-jarrera agertu behar da edozein diskriminazio mota erakusten duten alderdien aurrean. Analisi kritikoa egiteko prozesuetarako, Antzinako klasikoaren herentzia eta hura jatorri duten kultura-desberdintasunak errespetatuko dituzten gogoe- ta- eta komunikazio-testuinguru dialogikoak behar dira.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII3, HK1, HK3, HK4, EK3, KAKK1.

2. Hizkuntza klasikoen (latinaren eta antzinako grekoaren) jatorri, bilakaera, etimologia eta lexikoaren oinarritzko alderdiak ezagutzea, EAEko irakaskuntza-hizkuntzekin, inguruko hizkuntzekin eta ikasleen erreperitorio indibidualerako beste hizkuntza batzuekin alderatuz eta lexiko arruntetik ondorioztatzeko eta lexiko jaso, zientifiko eta tekniko ulertzeko estrategiak erabiliz, hizkuntza-aniztasuna kultura- aberastasunaren adierazgarri gisa baloratzeko.

Latina eta grekoa Europako ondare komunaren jatorria dira, eta ekarpen handia egin dute Europako egungo hizkuntzen konfigurazioan: grekoak, jakintzaren arlo guztietako lexiko zientifiko-teknikoaren zatirik handiena osatzeko erabili den hizkuntza delako; latinak, hizkuntza erromantzeak hizkuntza horretatik eratorri direlako, hizkuntza horien bitartez Europako gainerako hizkuntzetan eragina izan duelako eta mendeetan kultura transmititzeko hizkuntza izan delako. Hizkuntza klasikoan jatorriari, bilakaerari, etimologiari eta lexikoari buruzko oinarriko alderdiak hizkuntzak eskuratzeko ikuspegi eleaniztun batetik abiatuta sartzeak aukera emango die ikasleei ezagutzak eta estrategiak beren erreperatorioko hizkuntzetatik hizkuntza klasikoetara transferitzeko, eta alderantziz. Era horretan, hizkuntza berrien ikaskuntza eta komunikaziorako konpetentzia hobetzeko beharrezkoak diren trebetasunak aktibatu ahal izango dituzte, hizkuntza-ezagutzen mailak kontuan hartu ahal izango dituzte, eta hizkuntza-, dialekto- eta kultura-aniztasuna identifikatu, baloratu eta errespetatuko dute, kultura partekatu bat eraikitzeko.

Aurreko guztiak ulermenezko irakurketaren eta ahozko eta idatzizko adierazpenaren hobekuntza sustatzen du euskaraz, gaztelaniaz eta ikasleen erreperatorio akademiko eta pertsonaleko hizkuntzetan, eta trebetasun lexikoak eta semantikoak garatzen laguntzen du, jatorri greko-latindarreko lexiko arruntaren esanahia ondorioztatzeko estrategiak eskuratzearen eta lexiko jaso, zientifikoa eta teknikoa osagai etimologikoetatik abiatuta ulertzearen bidez. Hizkuntzak alderatzeko, beharrezkoa da transkripzioaren eta bilakaera fonetikoaren oinarriko arauak erabiltzea, lexiko eta hiztegi zientifiko-teknikoan sustrai greko-latindar nagusiak identifikatzea eta hizkuntza modernoetan dauden helenismoak eta latinismoak ezagutzea. Konpetentzia honek antzinako grekoak eta latinak atzerriko hizkuntza berriak ikasteko prozesuan duten baliagarritasunari buruzko gogoeta dakar; prozesu hori tresna digitaletan oinarrituta egin daiteke, hala nola Europako Hizkuntzen Portfolioan.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK4, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM1, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII3, KPSII5, HK1, HK2, HK3, EK2.

3. Mundu klasikoaren ondare materiala eta materialaz jabetzea eta berau baloratzea, zibilizazio greko-latindarrak egungo gizartearen esparru askotan izan duen eragina identifikatuz, ondare arkeologiko eta artistikoaren zaintza, kontserbazio, zaharberritze eta jasangarrirako prozesuak justifikatzeko.

Ondare kultural, arkeologiko eta artistiko greko-erromatarra, materiala eta immateriala, gure herrialdeak ez ezik gure inguruneko herrialdeek ere jaso dute, eta arreta espezifikoa merezi du, zibilizazio greko-latindarraren zuzeneko herentzia baita. Ondare klasikoaren aurkikuntzan eta ezagutzan oinarrituta, zibilizazio klasikoak mendebaldeko kulturaren utzitako herentzia identifikatuko dute ikasleek, zibilizazio greko-latindarraren kultura- eta arte-adierazpenak egungo produkzio askoren ereduak eta aurrekariak baitira neurri handian. Haien artean, azpimarratu beharrezkoak dira, alde batetik, eskultura eta arkitektura (haien aztarnak gure ondare historikoaren parte dira gaur egun), eta, bestetik, literaturaren adierazpenak (haren konfigurazioak —generotan— gure literatura-tradizioa eta egileek erabilitako topikoak eta baliabideak ekarri ditu). Era berean, ezinbestekoa da ondare klasikoa zientzia aplikatuetan, teknologian eta zuzenbidean ikustea, Antzinaro Berantiarreko konpilazio entziklopedikoen bitartez. Beste kultura-adierazpen batzuek, hala nola mitologiak edo erlijioak, ez dute jarraitutasunik gaur egun, baina gure zibilizazioaren tradizioaren parte dira, eta haien eragina erabakigarria da mendebaldeko imajinarioa eratzeko.

Bestalde, herentzia materiala ezagutzeko, beharrezkoa da ondarea zuzenean eta zeharka behatzea eta, horretarako, hainbat baliabide erabiltzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituztenak barne. Ondare materialaren garrantziaz jabetzeko, eraikuntza-prozedurak —ondare arkeologikoaren kasuan— eta konposizio-prozedurak —idazketa-euskarrien kasuan— ezagutu behar dira. Gainera, zaintzeko, kontserbatzeko eta zaharberritzeko prozesuak bereizi behar dira, bereziki inguru-nearekin eta ondare propioarekin konprometitutako herritar aktiboen parte-hartzea behar duten alderdiak kontuan hartuta, UNESCOren munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko Konbentzioari jarraikiz. Bestalde, zibilizazio klasiko greko-latindarraren herentzia immateriala ezagutzeak (erakundeetan erabiltzen den oratoria, denboraren zenbaketa, zeremonia pribatuak, aisia-ikuskitzak eta abar) gure egungo gizartearen eta kulturaren funtsezko alderdi batzuk ulertzen laguntzen du, eta bizitza osoko beste ikaskuntza batzuetarako prestatzen ditu ikasleak.

2023ko uztailaren 31, astelehena

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK4, STEM2, STEM4, KD1, KD2, KD3, HK1, HK2, HK3, EK1, EK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3.

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Kultura Klasikoa
<b>1. konpetentzia espezifikoa</b>
1.1. Greziako eta Erromako historiako gertaeren artean Europaren eraikuntzarako garrantzitsuenak izan direnak ardatz kronologikoetan ipintzea eta mundu greko-latindarreko funtsezko puntu geografikoak kokatzea (polisak, hiriak, eskualdeak, probintziak, enklabeak, aztarna arkeologikoak eta abar), antzinako klasikoko esparru historiko-geografikoaren eta egungo Europako errealitate geopolitikoaren arteko elkarrekotasuna ezarri.
1.2. Egungo Europako erakunde politiko, gizarte-klase eta kultura-tradizio nagusien eta aurrekari klasikoaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzea, Antzinako klasikoko eredu politiko, sozial eta filosofikoek Europaren eraketan izan duten eragina kritikoki eta genero-ikuspegiarekin baloratuz eta gizarte libre eta demokratiko batean lekurik ez duten elementuak baztertuz.
1.3. Emakumeek Grezian eta Erroman zuten egoera kritikoki eta genero-ikuspegiarekin deskribatzea eta aztertzea, egungo Europan duten egoerarekin alderatuz.
1.4. Hispaniako erromanizazio-prozesuaren bereizgarri diren funtsezko alderdiak azaltzea, erromanizazioak gure eguneko bizitzan, ohituretan, aisian eta antolamendu sozial eta politikoetan eragin dituen eraldaketa nagusietakoren bat kritikoki aztertuz.
<b>2. konpetentzia espezifikoa</b>
2.1. Grekoaren eta latinaren jatorriaren, egituraren eta bilakaera historikoaren oinarriko alderdiak azaltzea, Europako egungo hizkuntzetan izan duten eragina aztertuz.
2.2. Gaztelaniazko ondare-hitzak eta kultismoak ezagutzea eta euskararen lexikoan latindar jatorriko hitzak identifikatzea, haien bilakaera fonetikoaz aztertuz.
2.3. Irakaskuntza-hizkuntzetan eta beste hizkuntza moderno batzuetan jatorri greko-latindarreko lexikoa identifikatzea, esanahiak ondorioztatzea eta lexiko zientifiko-teknikoa zuzen erabiltzea, sustrai greko edo latindarrekin duen lotura adieraziz.
2.4. Inguruko zein Europako hizkuntza- eta kultura-aniztasuna baloratzea eta horretara egokitzea, hizkuntzen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz eta azalduz eta kultura partekatu bat eta balio demokratikoekin konprometitutako herritartasun bat garatuz.
<b>3. konpetentzia espezifikoa</b>
3.1. Ondare klasikoa zientzia formal eta aplikatuetan, teknologian eta zuzenbidean ezagutzea, antzinako munduko jakintza zientifikorik esanguratsuenak identifikatuz eta hizkuntza klasikoek kulturaren transmitzaila gisa bete duten zeregina baloratuz.
3.2. Literatura greko-latindarrak literatura- eta arte-obretan (pintura, eskultura, zinema, komikia, publizitatea eta abar) utzi duen aztarna ingurune analogiko eta digitaletan ezagutzea, jatorri klasikoko gaiak, topikoak eta argudioak identifikatuz eta haien tratamendua kritikoki eta genero-ikuspegiarekin baloratuz.
3.3. Erlijio eta mitologia greko-latindarrek orain arte arte-, literatura-, kultura- eta kirol-adierazpenetan izan duten iraupena euskarri analogiko eta digitaletan ezagutzea, denboran izan duten tratamendua eta bilakaera kritikoki aztertuz.
3.4. Arte greko-latindarrak egungo arte-adierazpenetan duen eragina ingurune analogiko eta digitaletan ezagutzea, tradizio klasikoaren elementuak identifikatuz eta haien tratamendua eta bilakaera estetiko eta formala baloratuz.
3.5. Erromanizazioak inguruko ondare kultural eta arkeologikoan utzi dituen aztarnak testuinguru analogiko eta digitaletan ezagutzea, zaindu, kontserbatu eta zaharberritzeko prozesuak ingurumen- eta gizarte-iraunkortasunarekin eta ondarearen zaintzarekin konprometitutako herritartasunaren funtsezko alderdi gisa identifikatuz.

## OINARRIZKO JAKINTZAK

Kultura Klasikoa
<b>A. Mundu klasikoa: Grezia eta Erroma.</b>
Greziako eta Erromako historiaren barruan Europaren eraikuntzan garrantzitsuak izan diren gertaerak.
Mundu greko-latindarreko funtsezko entitate geografikoak (polisak, hiriak, eskualdeak, probintziak, enklabeak, aztarna arkeologikoak eta abar).
Antzinako klasikoaren esparru historiko-geografikoaren eta egungo Europako errealitate geopolitikoaren arteko elkarrekotasunak ezartzeko prozedurak.
Antzinako klasikoaren ordezkari politikoak erakunde nagusiak.
Greziako eta Erromako gizarte-klaseen antolamendua eta bilakaera.
Greziako eta Erromako eguneroko bizitza.
Egungo Europako erakunde politiko, gizarte-klase eta kultura-tradizio nagusien eta haien aurrekari klasikoaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzeko estrategiak.
Europako egungo kulturaren dauden eta gizarte libre eta demokratiko batean lekuri ez duten jatorri greko-latindarreko kultura- eta gizarte-elementu eta alderdi patriarkalak identifikatu eta baztertzeko jarraibideak.
Emakumeek mundu greko-latindarrean zuten egoeraren eta egungo Europan dutenaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezagutzeko estrategiak.
Hispania erromanizatzeko prozesua eta probintziako antolamendu politiko eta administratiboaren etapan identifikazioa. Euskal Herriko erromanizazioaren ezaugarriak.
Erromanizazioak gure eguneroko bizitzan, ohituretan, aisian eta antolamendu sozial eta politikoetan eragin dituen eraldaketa nagusietakoren bat kritikoki aztertzeko jarraibideak.
Iturri analogiko eta digitaletan oinarrituta informazioa hautatu, antolatu, egiaztatu, koproduzitu eta komunikatzeko jarraibideak.
Kolaborazio-proiektuetan parte hartzeko tresna eta/edo plataforma digitalak erabiltzeko jarraibideak.
<b>B. Hizkuntza klasikoak, Europako ondare komuna.</b>
Grekoaren eta latinaren jatorria, egitura eta bilakaera historikoa.
Latinak eta antzinako grekoak Europako egungo hizkuntzetan duen eragina identifikatzeko jarraibideak.
Latinetik gaztelaniarako bilakaera fonetikoaren funtsezko arauak identifikatzeko eta ondare-terminoak eta kultismoak ezagutzeko estrategiak.
Latineko terminoen euskararako bilakaera fonetikoa identifikatzeko estrategiak.
Sustrai greko-latindar eta familia lexiko nagusiak irakaskuntza-hizkuntzen lexikoa ezagutzeko estrategiak.
Hitzen esanahi etimologikoaren hastapenak.
Helenismo eta latinismorik ohikoenak ezagutu eta interpretatzeko jarraibideak.
Lexiko zientifiko eta teknikoaren etimologia.
Sustrai greko-latindarretatik abiatuta lexiko espezializatuan eta agertu berriaren esanahiak ondorioztatzeko oinarritzko estrategiak.
Hizkuntzak ikasteko baliabideak (hala nola Europako Hizkuntzen Portfolioa) eta oinarritzko estrategiak.
Estatuko eta atzerriko ikasleekin tresna eta/edo plataforma digitalen bidez hizkuntza eta kultura klasikoaren inguruko komunikazio-elkartruke planifikatuetan eta/edo proiektuetan parte-hartze aktiboa, kooperatiboa eta errespetuzkoa izateko estrategiak eta jarraibideak.
Internet bidezko zuzeneko edo zeharkako interakzioen portaera orokorrari buruzko arauak aplikatzeko jarraibideak: netiketa.
Autokonfiantza, autonomia eta ekiteko jarrera. Errorea, ikasteko prozesuaren parte.
<b>C. Zibilizazio greko-latindarren iraupena egungo munduan.</b>
Testu-transmisioa eta idazketaren euskarriak.
Ondare klasikoa zientzia formaletan, zientzia aplikatuetan, teknologian eta zuzenbidean.

2023ko uztailaren 31, astelehena

<b>Kultura Klasikoa</b>
Literatura greko-latindarraren funtsezko obrak beren testuinguruan, eta tradizio klasikoan izan duten iraupena.
Grekozko eta latinezko literaturako gaiak, topikoak eta pertsonaiak literatura-obretan eta arte-obretan (pintura, eskultura, zinema, komikia, publizitatea eta abar) identifikatzeko estrategiak.
Ikasleen hurbileko gaiak (hala nola emakumearen egoera, ekologia, giza eskubideak eta abar) tratatzean literatura-testu greko-latindarren kultura-eredua eta egungoa kritikoki eta genero-ikuspegiarekin aztertzeo estrategiak.
Erlijio eta mitologia greko-latindarrak.
Kultu, erritu, jai eta mito greko-latindarrek arte-, literatura-, kultura- eta kirol-adierazpenetan egun arte izan duten iraupena ezagutzeko estrategiak.
Arte klasikoa.
Egungo arte-adierazpenetan tradizio klasikoko elementuak identifikatzeko eta haien tratamendu eta bilakaera estetikoak eta formala baloratzeko prozedurak.
Zibilizazio greko-latindarraren ondare materiala Euskal Herrian, Espainian eta Europan: leku arkeologikoak, inskripzioak, monumentuak, eraikinak, obra publikoak, toponimia eta abar.
Inguruko ondare arkeologikoa kontserbatu, zaindu eta zabaltzeko prozesuetan parte hartzeko interesa eta ekiteko jarrera.
Ahozko eta idatzizko ulermen, produkzio eta koprodukziorako eta multimodalerako tresna analogikoak eta digitalak.
Kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien jabetza intelektualarekiko eta egile-eskubideekiko errespetua